

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Suhiltzaile izateko oposizioaren lehen proba irailaren 15ean egingen da UPNAn

Guztira, 519 pertsona onartu dira behin-betiko zerrendetan, 492 txanda askekoak eta 27 sustapenekoak, eta % 3,5 emakumeak dira

Osteguna, 2018.eko abuztuak 16

Nafarroako Administrazioaren zerbitzuko [Suhiltzaileetako 17 lanpostu](#) betetzeko oposizioaren lehendabiziko proba irailaren 15ean egingen da, 10:00etan, Iruñeko Arrosadia Campusean kokatuta dagoen Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gelagunean.

Guztira, 519 pertsona inskribatuta daude behin-betiko zerrendetan, 492 txanda askekoak eta 21 sustapenekoak, gaur [NAOn](#) argitaratu denez. Horietatik, % 3,5 emakumeak dira, azken oposizioan izandako gorakada indartuz, izan ere, orduko hartan, proba fisikoetan eskaturiko puntuazioak berrikusi eta generoaren arabera egokitu ondoren, betiere bi emakume baizik ez dituen Zerbitzu honetan duten presentzia areagotzeko xedez, emakumeak % 1,3 izatetik % 3,4 izatera igaro ziren.

Hauxe da legealdiko hirugarren oposizioa, eta hasieran deitutako 30 plazak eta ondorengo 15ak kontuan hartuz, orain arteko eskaintzan aurreikusita zeuden 62 lanpostuak beteko dira. Duela bi aste, Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako kontseilari María José Beaumontek azken oposizioaren oinarrizko prestakuntza ikastaroaren bukaeran iragarri zuenez, haren zuzendaritzapeko Departamentuaren helburua da 2018ko LEPan “ahalik eta lanpostu gehien” deitzea.

Oposizioak bi fase ditu: lehendabizikoan, ezagutzari buruzko probak eta proba fisiko eta psikoteknikoak daude, eta bigarrenean, oinarrizko prestakuntza ikastaroa gainditu behar da Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan.

Test moduko 150 galdera

Irailaren 15ean, oposizioa osatzen duten hiru probetako lehena egingen da, proba teorikoa. Oposiziotegileek 150 minutu izanen dituzte lau gai-multzoren inguruan antolatutako test moduko 150 galdera erantzuteko. Galderen erdiak salmenduari eta suteak itzaltzeari buruzkoak izango dira, eta 25 galdera egingen zaizkie gainerako hiru gai-multzo hauen inguruan: Nafarroako legeak eta erakundeak, Nafarroako lurraldeari buruzko ezagutza eta ezaguera teknikoak.

75 puntu lortzen dituzten pertsonak era askotako ariketa fisikoak tarteko dituen bigarren proba egingen dute. Proba horietan, honako alderdi hauek neurtuko dira: ur-ingurune domeinua, arintasuna (Barrowren testa), pisu altxaketa (banku-presioa), indar-erresistentzia eta

koordinazioa (alboko jauzien testa), oreka, indar erlatiboa (sokan igotzea) eta erresistentzia (Navetteren testa).

Hirugarren proban, txanda askeko eta sustapen txandako 25na pertsonak parte hartuko dute, gehienez, eta bertan, ariketa psikoteknikoak eta banakako nahiz taldekako elkarrizketak tarteko direla, lanpostura egokitzeko duten gaitasuna zehaztuko da.

Oposizioaren lehendabiziko fasea igarotakoan, gaitasun psikofisikoa egiaztatuko da. Lanpostuak hautatu ondoren, oinarrizko prestakuntza hartuko dute, Nafarroako Suhiltzaileetako azken 15 kide berriek 1.315 prestakuntza-ordu jaso ondoren egin zuten bezalaxe.